IRITZIA JUAN LUIS MUGERTZA · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN
KIROLA FUTBOL TALDEEN AURKEZPENAK

BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko urriaren 11a/X. urtea/420. zkia



BOST BIKI PARE JAIO DIRA AURTEN ELGOIBARREN

# Haurrak binan-binan datozenean

"HARA BI, ZU BAT ETA BESTEA NI" (esaera zaharra)

1 1 1 11

# GOKI ERREFORMAK

1111 **Malibi** CDUJEJDZ prlighadz

(4 1 (49.11V (4 1 Pti 3,1O

1.111 k



## Bainurako denetik





## Altzariak estilo guztietan

## Hidromasajean adituak





## Bainurako osagarrietan aukera zabala



## Ateekin lan egiten dugu baita ere

Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabiloia
Te1.: 943 74 28 80 - 943 74 42 23 - 943 74 46 40
Faxa: 943 74 45 87
20870 ELGOIBAR



# 19 profesional 10 urtean!!

1 langile profesional pasa dira BARRENetik 10 urteotan. Guztira, 4 zuzendari profesional, 6 kazetari, 5 maketatzaile eta 6 publizista izan ditugu. BARREN aukera polita izan da mundu profesionalean lehen pausoak eman eta lanbidea ikasten hasteko. Bost urtean zuzendari lanak bete zituen Ainhoa Lodosok esan digun moduan, "BARRENi esker lan profesionala zer den ikasi nuen. Batetik, argi esan behar dut zerotik hasi eta aldizkari bat abian jartzea sekulako erronka izan zela, benetan aberasgarria, bai arlo profesionalean zein pertsonalean. Eta bestetik, argi daukat BARRENen ikasitakoa dela gaur egun egiten dudan lanaren oinarria."

Gogora ditzagun 10 urteotako BARRENeko langile profesionalak:

Zuzendariak:
Ainhoa Lodoso
Eli Aizpura
Jon Ifiaki Lasa
Asier Orbea

Maketatzaileak:
Maite Rementeria
Mikel Cornejo
Bea Ansola
Iker Diego
Jaione Unanue

Kazetariak:
Ainhoa Lodoso
Jasone Osoro
Irati Agirreazaldegi
Asier Orbea
Jon Eugi
Ainhoa Andonegi

Publizistak:
Amaia Leiaristi
Nekane Etxaniz
Miryam Aldazabal
Maitane Cid
Andoitz Agirregomezkorta
Amaia Erkizia

Baina ez pentsa BARRENen profesionalek bakarrik lan egin dutenik. Makina bat lagunek hamaika lan egin du txikitarik ere kobratu gabe. Baina hauen berri datorren astean emango dizuegu.



# Zinemak

Praka motzak gure ohiko jantziak zirenean ez bat, ez bi, hiru genituen herrian. Bata herriaren goialdean zegoen eta ODEON zuen izena. Harroena, zalantzarik gabe, bere neonezko argi-keinukariak piztuta gaueko saioetan. Bestea erdialdean zegoen, errekaren ondoan aingira eta barboez inguraturik. Honek ez zuen izenik eta baldin bazuen, nik ez dut gogoan. Guk Errosario kalekoa esaten genion. Ez zen bestea bezain txukuna, baina bakeroen pelikula onak ematen zituzten eta horrek ikutu berezia ematen zion tiro-hotsen eta komantxeen oihuen artean Amerikako lautada zoragarrietan eurekin batera trostan joateko. Hirugarrena behealdean zegoen. Gaur egunean zutik irauen bakarra. Aurreko bietan porlana eta herritarren dirua dago-eta. Ume denboran harako joera handirik ez bagenuen ere, orain derrigortuta gaude bertara joatera, baldin eta pelikularen bat ikusiko badugu.

Ez dakit nahita egingo zituzten, baina ezin hobeto kokatuta zeuden orduko zinemak. Ez zegoen inolako aitzakiarik zinemara ez joateko, zeren eta gehienak norbera bizi zen etxetik oso gertu egoten baitziren. Niri orduko zinemen tamainak atentzioa ematen zidan. Hain ziren handiak, ezen inurri baten itxura hartzen baikenuen orduko egurrezko besaulki deserosoetan. Sarri askotan aurrekoaren ertzari helduta jarraitzen genuen zuri-beltzean behin baino gehiagotan ikusitako

Eta luzeend Hori zen eta ez oraingo zinemena. Mutur batetik bestera gorengo futbol zelaien bestekoak ez baziren ere, ez ziren oso urruti egongo. Niri behintzat hori iruditzen zitzaidan aurreko lerroetara lagunen bila neskatxoen aurretik igarotzen nintzenean, eta nire belarrien atzean irrinoen kilika eta pipa Fakundoen kraska entzuten nituenean. Hala eta guztiz ere, errugabetasun honen barruan ezin laga ditzaket alde batera zenbait egunetan eginiko bihurrikeriak. Amamak emaniko astesaria motz gelditzen baldin bazen, eta ikusi nahi genuen pelikula gustukoa bazen, burutu beharreko ahaleginek inoiz kale egin ohi bazuten ere, gehienetan txukun suertatzen zitzaizkigun. Batzuetan lurrean sakabanatutako sarrera puskatuak batzen eskolako etxerako lanak egiten baino denbora luzeagoa ematen genuen, gero kolore bereko eta egun hartako sarrera beretsua har zezakeen itxura emateko -hoffetaralco kola eta ilusioa baino ez zen behar

Elkar ezagutuko ez bagenu moduan, banaka zein binaka ziurtasun eta seriotasun handia erakutsiz, eskutxoaren hatzamarretan begi bistan gelditzen zen pusketa dardar zegoela, aurrera egiten genuen. Gehienetan ikusi beharreko pelikula gutxienekoa zen. Berdin zigun Gari Cooperrek zein... Kontua etxetik alde egitea eta ilunaren babesean egotea zen, horrek handiak egiten gintuen-eta, orain ordukoa gogoratzeak txikiak egiten gaituen arren.

**Juan Luis Mugertza**

2002-X-11

## KALE INKESTAREN INGURUAN

Aspaldi honetan BARRENen dagoen eskutitz eskasia ikusita, lerro hauek idaztera animatu naiz. Kale inkestan, azken aleko BARRENen, Ibarretxek egoera politikoari irtenbidea emateko proposamenaren inguruan galdetzen zen. Egoera dagoen moduan egonda, ondo deritzot irtenbideei buruz galdetzea. Bai orain eta baita beste alderdi edo eragile politiko zein sindikalek berea aurkezten dutenean ere, nahiz eta Ibarretxerena bezain polemikoak ez suertatu. Bide batez kale inkesta hau zabaldu egin beharko litzatekeela uste dut. Adibidez:

-Zer iruditzen zaizu alderdi politikoen lege berria?

-Ados al zaude Eusko Jaurlaritzak Garzonen autoak aplikatzearekin?

-Egoera demokratikoa iruditzen al zaizu oraingo hau, indar politiko bat legez kanpo utzita?

-Ondo iruditzen al zaizu lbarretxek Batasunarekin hitz egin nahi ez izatea'? Eta abar.

Errealitate politikoa osoago jasota geratuko litzatekeela uste dut.

**P.M.**
**N.A.N. 15357275**

Fnek a.eaizen.obizenak, NAN


ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
o 943 74 41 12
Publizilatea:
r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Hetbide informatikoa:
www.topagunea.camfbarren
ARGRAGArLAILEA
Elgulbarko Izarra

**LAGUHTZAILEA** Elgoterko Udala **KOCINDINAITAILEA** Ainhoa Andonegli **ZUZENDARIA** Asier Orbea **KATSTAWA** Irati Agirroazaldegi, **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKEtATZAILEA** Jamne Unanue **ADMESTRAZIDA** Amaia Rodrigez **GEREMIA** JDn Peli Urrguen **KOLADDRATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Eluslondo, Alberlo Ansuategi, Edume Eilbao, Golzon Affieta. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Mentse Arregi, JuanIlo GorostIza, Ainhoa Andonegi, Kokoo K.E. eta Urruzuno L.T. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Golzon Garaleren **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.025 **01B** **LEGE GOADJULUA** SS-1.038i92 ISSN 11391855

ELGOLBAIKO IZARIA
1111.7171 KKKKKKKK

*Elgoibarko Udalak, Eusko laurlaritz.alto Kultura Sailak eta* FOTI4 *Aldundiak dinez lagundutako aldizkaria,*

rei kutxa

t1DANOBAT SNGOITI ORGRODANOSIAT ti pwrA_RTA


EsKl.,7 ZAKc1,7 El9'odevozlzi PRZ

# Urruzunoren
## begi ezkutua

## Laino beltzak



dh.flok
./emer▶

'141 1'

Txikia zenean, sarritan, lainoak margotzen zituen bere kuadernoan eta lainoak margotzen zituenean, laino txuriak margotzen zituen, beti laino txuriak. Berarentzat ez zegoen txuria ez zen lainorik zeruan. Gehienak borobil-borobilak marrazten zituen, noizean behin bakarrik luzatzen zituen, salbuespen kasuetan bakarrik. Mutikoa gizon bihurtu zen. Gizonak sarritan lainoak margotzen zituen bere koadroetan. Baina ez zituen jada laino txuriak bakarrik margotzen. Laino batzuk ilunak ziren, txuriak baino askozaz ere ilunagoak. Eta bakan batzuk, beltz-beltz-beltzak. Laino beltzak. Bihotzeko mina bezain beltza zen laino beltz haien beltza, ikatza bezain beltza laino beltz haien beltza. Bizi izandako une mikatz, txar, triste eta beltzen ohorez. Errepikatu nahi ez zituen hankasartzeen omenez. Jakinik beti ere, ipar, hego, eki edo mendebaldeko haize leunen batek, seguruan, lehenago edo beranduago, laino beltz, zatar haiek urrutira eramango zituela, oso urrutira eta borobilago eta txuriago ziren beste batzuk zurituko zutela bere zerua, bere bizitza. Baina horretarako, koadro hori bukatu ahal izateko, ahalegindu egin behar zen bere artista lanean, aurrera segi amore eman gabe, geratu gabe, laino txurien esperoan, bere txikitako laino txuri eta borobilen esperoan.

Eguzkifie Aranberri

## CO> MEZIX

• Mutil batek esan digunez, Bernardo Ezenarro kalea asteburuetan erabat zikintzen dute: "Larunbatero biltzen da jendea Bernardo Ezenarro kalean, eta dena zikinduta lagatzen dute. Pilatzen den zaborra jasotzen dute, baina lutreko mantxa asko ezin dira garbitu". Bere ustez, ez lukete utzi behar horrelakorik egiten.





• Ikastolako mutiko batzuek koartela zegoen lekuan autoak aparkatzen dituztela adierazi digute, eta ezin izaten dutela futbolean jokatu: "Jende askok autoa aparkatzen du bertan, eta baloiarekin jotzen badiogu haserretu egiten dira. Hori ez da aparkalekua, beraz, ez lukete bertan autoa laga behar".



• Karkizano auzoko emakume batek esan digunez, belarra moztu zuten beraien auzoan, eta astebetean dena bertan botata utzi zuten: "Urtebete baino gehiago zeramaten gure auzoko belarra moztu gabe. Joan zen astean moztu zuten azkenean, eta adar guztiak hernen botata utzi diuzte". Astebete beranduago kendu omen dituzte belar eta adar zatiak, baina dena zikinkeriaz beteta egon da.

• Mendaroko talde batek, herriko gazteak txalotu nahi ditu, bizkotxoak eginez Zuberoaren alde 700 euro lortu lituztelako: "Euskal Bizikletako etapa Mendaron bukatu zen egunean, herriko gazteek bizkotxoak egin zituzten eta saldu Zuberoaren alde dirua lortzeko". Txalotzeko moduko ekintza dela gaineratu dute.



# BI Ide gehiago

***Hourrak Paristik datozela dio esaerak, baina aurki umeak Elgoibartik datozela ere entzungo dugu agian. Izan ere, martxotik abuztura bitartean 5 biki** pare **jaio dira gure herrian. Noiz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotze-tasa Europako bajuena denean. Horri buelta eman nahian-edo seme alabak dituzten famillei laguntzeko plana jorri du martxan Eusko Jauriaritzak. Plan honek lana eta familia bateragarri egitea du helburu. Erreportaje honetan plangintzaren berri emateaz gain, Elgoibarren jaio berri diren biki batzuen gurasoekin eta bikiekin hitz egin ondoren jasotakoa kontatuko dizuegu. Bide batez, hainbeste biki jaiotzearen arrazoiaren bila ere aritu gara.***

## Nora eta Lara Miguez 11 urteko bikiak



Nora eta Lara bikiak dira, eta tagunek eta etxekoek ezagutzen dituztela esan diguten arren, guri asko kosta zaigu zein nor den jakitea. Bikiei buruzko hainbat gauza jakin nahian bi neskatilokin izan gara berriketan. Bikiak izateak dituen abantailei buruz galdetuta zera erantzun digute: "Ikastolan takilak dauzkagu eta bati liburuak ahaztuz gero, bestearenak hartzen ditu. Lanak egiteko garaian ere erdibana egiten ditugu. Jolaserako ere ez dugu askotan beste inoren beharrik, biok nahikoak baikara elkarrekin jolas egiteko". Arropa kontuan ere badute abantailarik: "Aukeran arropa gehiago daukagu. Arropa guztia berdina erosten dugu kolore ezberdinetan eta batzutan, elkarrekin haserre ez bagaude behintzat, berdin janzten gara". Haserre kontuak aipatuta, noizean behin haserretzen direla aipatu digute, baina hori ez da bikien kontua bakarrik anaia-arreba gehienak haserretzen baitira noizbait. "Nora da errazen haserretzen dena", esan digu Larak. Hala ere, batek ez du besteak baino gehiago agintzen. Ikastolan gela banatan daude ikasgairen baten izan ezik, eta eskolaz kanpo ere jarduera ezberdinetan aritzen dira. Gerora ere ikasketa ezberdinak egingo dituztela esan digute: "Niri medikua edo erizaina izatea gustatuko litzaidake eta Lara mareatu egiten da horrelako gauzekin. Beraz, bakoitzaren gustuen araberako aukeraketa egingo dugu", esan digu Norak.

dituen esanetan, bikoteen Ak batez-besteko seme-alaba kopurua ez da batera iristen. Gazteak eta nerabeak gustura bizi dira familian, eta beraien asmoa norbere familia osatzea da. Baina, lana eta etxebizitza lortzeko dauden zailtasunak jaiotze tasaren kalterako dira. Familia sortzeko erabakia hartzea gogorra dela dio askok:

**DIRU LA**

.*: Bigarren semea edo alaba jaiotzean:

ett. Hirugarren edo hurrengo seme alabl

- Erditze edo adopzio anitzak

**Bi:** 2.600 lehen 3 urteeta

**Hiru:** 4.000 lehen 3 urte

Lau: 5.400 lehen 3 urtee

40" Gehiago: 1.400 haur bal

hurrengo 7 urteet,

Ez dago haurdunaldi anitzen arrazoia zein den esaterik. Hala ere, honen inguruko hainbat uste daude: Herentzia izan liteke faktoreetako bat. Gehienetan amaren familiatik etorri ohi da eta transmisioa bi belaunalditik behin gertatzen da. Zortea da beste arrazoi bat. Ertafrikako emakumeek bikien haurdunaldi asko izaten dituztela ere badiote, beraz, arrazak badu zeresanik. Adinak eta aurretik izandako hardunaldiek ere paper

# familian

Ekonomiaren kalterako izateaz gain, lan arloko garapena murrizten du eta baita askatasuna eta bizitza kalitatea ere. Plan honen bidez ekonomia, gizarte eta lan alorreko oztopoei aurre egin nahi zaie, familia bakoitzak askatasun osoz eduki nahi duen seme-alaba kopurua erabaki dezan. Florretarako lan, gizarte eta ekonomia arloko neurriak hartu dira.

JNTZAK

00

.100 bizitzako lehen 5 urteetan

la 1.200 hurrengo 7 urteetan.

n eta 2.400 hurrengo 7 urteetan.

eta 3.600 hurrengo 7 urteetan.

tzeko lehen 3 urteetan eta 1.200

garrantzitsua jokatzen dute haurdunaldi anitzak gerta daitezen. Bestalde, esterilitate edo antzutasun arazoak dituzten emakume askori estimulante obarikoak ematen dizkiete sendagileek. Hauek obulo mordoa sortarazten dituztenez, haurdunaldi anitzak gertatzeko aukera gehiago dago. Zortea, herentzia, tratamendua edo auskalo zer izan den gure herrira 5 biki pare ekarri dituena. Flona hemen bi esperientzia.

## iñaki Goñi, Unax eta Maddi Goñi Lariz bikien aita

Iñaki Goñik eta Nerea Larizek ume bat izan nahi zuten, eta bikiak zetozela esan zietenean sorpresaz hartu zuten berria: "Nerea, nire emaztearen familian lehengusuren batzuk-edo izan zituzten bikiak baina nirean ez, eta ez genuen horrelakorik espero. Piskanaka asimilatu genuen, eta haurrak jaiotzen direnean eta zein lan ematen duten ikustean konturatzen da bat benetan datorkionaz”. Haurdunaldia ondo joan zen eta erditzerakoan umeetako bat alderantziz zetorrenez zesarea egin zioten Nereari, arriskua ebitatzeko.

Bikiak izatea esperientzia polita baina era beran gogorra dela esan digu Iñakik: "Gogorrena gauetakoa da: Hasieran denbora tarte txikian hartzen dute biberoia eta bakoitza ume batetaz harduratzen denez, gauean bi aldiz jaiki eta hurrengo egunean lanerako altxatzea astuna da oso. Baina azken finean, antolatzea da kontua. Orain ez daukagu ezertarako astirik, seme-alaben menpe bizi gare.

Lana astuna izan arren, ongi moldatzen dira bikiak zaintzeko orduan: "Egunez Nereak zaintzen ditu eta batzutan familiakoen laguntza izaten du. Gero, nik lanetik irtendakoan haurrak bainatzen ditut, eta biberoia ematea eta gainontzeko lanak erdibana egiten ditugu. Eginez abilidadea hartzen da", esan digu Iilakik.

Bikiak berdin-berdinak direla entzun izan dugu askotan, baina Unax eta Maddik badute ezberdintasunik beraien artean: "Fisikoki, esaten digute batak nire antza duela eta besteak Nerearena. Azala ere batak besteak baino sensihleagoa du. Bestalde, mutila neska baino biziagoa da".

Elgoibarren martxotik hona bikiak jaiotzea bitxikeria iruditu zaio Iñakiri, baina berak beste bitxikeria bat kontatu digu:



"Ospitalean geundela Azkoitiko bikote bat etorri zen gure gelara eta beraiek ere bikiak izan zituzten, baina kontua da aurrez ere bikiak zituztela".

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko plangintzarekin jendea ume gehiago ekartzera animatuko denik ez du uste Ihakik.

Nahiz eta dirulaguntzak ongi etorri ez dira nahikoak. Gainera, plangintza honek jaso du kritikarik: batetik, lanaldi murrizketa gizonek eskatuz gero emakumeek baino laguntza handiagoa jasotzen dutelako; Bestetik, berria, ez delako familia bakoitzaren egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartzen laguntzak ematerako orduan".

Iñaki eta Nerea pozik daude Unax eta Maddirekin eta hasierako une gogorrak ahaztuta, gerora ere izango dute beraiekin jolas eginez gozatzeko astirik.

# Moruko Burdin Aroko aztarnak aprobetxatuz aisialdi gunea egingo du Udaiak

## Oraingoz herrixkaren hiru babes-horma aurkitu dituzte

Moru mendian Burdin Aroko herri baten aztarnak zeuden ustearen berri eman genizuen lehen. Hiru urtez jarraian auzolandegietako gazteak lanean aritu ostean, han aurkitutako aztarnek osatzen duten egitura dela-eta, ustea baieztatu egin dute. Aurrerantzean azterketa gehiago egiteko asmoa ere azaldu dute, benetan aberatsa izan baitaiteke arlo arkeologikoari dagokionez.

Herrixka Moru mendiaren gainaldean kokatuta dago eta oraingoz hiru babes horma aurkitu dituzte mendebaldeko, ekialdeko eta hegoaldeko mendi magaletan.

Tamalez, hormak egoera kaskarrean daude, Gerra Zibilean hondatu zituztelako Arrate parean lubaki bat egiteko mugituz. Hala ere, mugak zehazteko baliagarriak dira harresiok.

Bestalde, Morun trikuharriak zeuden ustea ere izan zuten hasieran, baina harri naturalak direla probatu dute. Dena den, badira harri txikiago batzuk elkarren aldamenean, buzoi alboan, tumulua osa lezaketenak.



*Harrizko hormak egoera kaskarrean daude Gerra Zibilean hondatu zituztelako.*

Aisiialdi gunea

Aurkikuntza hauek aprobetxatuz, Udalak Moru inguruan gune kulturala ezartzeko asmoa azaldu du. Baina proiektua epe luzera gauzatuko dela esan dute. Jadanik prest dute proiektuaren zirriborroa eta honen arabera goiko aldean aisialdi gunea egongo da eta harresiak eta tumulua bistaraziko dituzte. Honekin batera, Burdin Aroko herrixka baten erreplika egin nahi dute garai hartako txabolen eta biztanleen irudiekin. Gainera, Moruren kokaleku aparta kontuan hartuz, bi behatoki egingo dituzte Arrate aldera bata eta Elgoibarera begira bestea.

# Urasandiko eta Pedro Muguruzako aparkalekuak erabiltzeko prest daude

## Guztira 60 autorentzako tokia izango da



*Pedro Muguruzako eskola zalzarretan 24 autok izango dute tokia.*

parkaleku berriak ditugu Elgoibarren. Urasandin, Tontodromo izenez ezagutzen den gunean 36 autorentzako lekua dago. Aparkaleku inguruan paseatzeko tokia gorde dute eta patinetean ibiltzeko U formako pista ere mantendu dute bertan. Gainera, argiztapen sistema berria ere jarri dute. Pedro Muguruzako eskola zaharretako patioan, berriz, 24 auto aparkatu ahal izango dira. Horietatik 12 Pedro Muguruza kaletik bertara joateko eskaileren aldamenean egongo dira eta gainontzekoak eskolaren eta etxebizitza blokearen artean. Aparkatzeko toki gehiago dagoela kontuan hartuta, toki ezegokian utzitako autoei isunak jarriko dizkietela jakinarazi dute inguru hauetan ipinitako kartelen bidez.

## Buruhandiak, pilota partiduak eta salbea izan dira Errosario kaleko jaietan



Ostiralean hasi eta astelehenera bitartean jaietan izan dira Errosario kalean, egunero botatako txapliguek horrela jalcinarazi digute behintzat. Afaritara 53 lagun bildu ziren Gabi jatetxean ostiralean. Igandean, berriz, kaleko hildakoen omenez meza izan zen Parrokian eta ondoren pilota partidua. Iparraldeko pilotariak 22 eta 17 nagusitu ziren Lagunak elkarteko Ansola eta Alzibarren aurrean. Buruhandiak eta haurrentzako jolasak ere ez dira falta izan aurten. Asteburu ostean, astelehenean ama birjinari errezatutako salbearekin amaitu zituzten jaiak Errosario kaleko bizilagunek.

## Laiott literatura aldizkariaren 9. alea kalean da

Elgoibarko Izarra Idazlehiaketetako 2001eko irabazleen ipuinak eta bertsoak biltzen dituen Laiotz aldizkaria kaleratu du Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak. Irabazleen lanez gain, beraien esanak ere bildu ditu Jon Eugi kazetariak. Aldizkaria ikastetxeetan banatu dute eta bide batez aurtengo idazlehiaketetarako deialdia ere egin dute elkartekoek, gazteei oinarriak ezagutaraziz. LHko 3. mailatik LOGSEko 2. mailara arteko haur eta gazteek hartu ahal izango dute parte. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren I5a izango da.






## Maria Etxabek irabazi du merkatu plazako hilabete honetako zozketa

Lekeitioko Enperatriz Zita bainuetxean igaroko du asteburu bat Maria Etxabek. Izan ere, bera izan da hilabete honetako merkatu plazako zozketako sariduna. Maria lagun batekin batera joango da bertara. Bestalde, merkatu plazan erosketak egiten dituzten bezeroen artean erosketa txekeak zozketatuko dituzte datorren hilabetean.

## Itxaropena abesbatzak herritarrei koruko partaide izateko deia luzatu die

Itxaropena abeshatzak Elgoibarko Musika Eskolako auditoriumean eta Debako Santa Maria elizan eskaini ditu udako denboraldia amaitzeko kontzertuak. Orain abesti berriak prestatzen hasi dira datozen kontzertuetarako eta 10. urteurreneko elcitaldietarako. 20 partaide ditu abesbatzak baina jende gehiago behar dutela eman digute aditzera. Herritarrei deia luzatu nahi diete Itxaropenakoek entsaioetara azaltzeko. Asteartero biltzen dira Plaza Txikiko buztin eskola gaineko gelan 20:00etatik 22:00etara. Gainera, abesbatza indartzeko irakasle profesional batekin ahots teknika lantzen hasi dira. Herritarrei deia luzatu nahi diete Itxaropenakoek



Gerra Phlleko hiru gorpuzkin daude lurperatuta Elgolharren.

# EAGUTZEN D1TUZU GERRA ZIBILEKO KONTUNI?



## ANTONIA AZPIRZU

73 urte, etxekoandrea

Bai, akordatzen naiz zela nere aitxa Guardia Zibilek kartzelara eruatia nahi zeben. Beraz, etxian ikusitxakua dakit garai hartatik.

## LUIS BERDONCES

65 urte, jubilatua

Bai, gogoan dut nola nire osabaren bila joan ziren etxera eta ez zen gehiago itzuli, hil egin zuten. Oraindik ere gerrari buruz inoiz hitz egiten da etxean.





## OIHANA ARANBERRI

28 urte, kamareroa

Piska bat ikasi naban eskolan, baina ahaztu eitxen da. Obligazioz ikasitxakuan ez da hainbeste interes ipintzen. Hala ere, gustauko jatan ze pasau zan jakitia.

## VANESSA ARMENTIA

28 urte, administraria

Bai, eskolan ikasitakoaz gain beste bide batzutatik ere jaso dut informazioa: telebistatik, pelikuletatik eta baita kartzelan egondako osaba batek kontatuta ere.





## ANTONIO FRANGO

74 urte, jubilatua

Ez, orduan ez nintzen hemen-eta. Portugalen bizi nintzen eta mugatik zerhait jakin genuen. Baina jendeak ez du apenas horri buruz hitz egiten eta ez dakit ezer askorik.

## LUIS BLANCO

**68** urte, jubilatua

Askorik ez, 36an Galizian bizi izan nuen gerra, baina oso txikia nintzen orduan. Gerra bera baino ondorioak ezagutu genituen guk: gosetea, lanik eza...





***ESKERTZA***

*2002ko irailaren 24an, 87 urte zituela hil zen PETRA. AGUIRREGOMEZCORTA IBARL UCEAren sendiak, •bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako dolurninak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Gaztia BaRRen

GAZTIA NAIZ

g a z t e   g e h i g a r r i a . 2002ko urriaren 11 X urtea/420. zkia



Argazkia: Dani Blanco

## ARIMA BELTZA

## "BLUES SUSTRAIA"

lorEa   dE AibEnizELKARRizKETA   Arima BEltzaGAIA   AsiEr ArrEgiLoTsAGABil

## CTHE DEALER

### RACING SLAB

Gasteizko Azkena aretoak duela aste hatzuk antohnu zuen rock jaialdian parte hartu zuen Raging Slab-ek. Greg Strzempka gitarjole-aheslariak eta Elyse Steinntan gitarjoleak punk estiloa jorratzen zuten handa sortu aurretik. Beraien esanetan. ordea. southern rocka zen henetan gogoko zuten musika. Ht dela-eta. 1985ean Raging Slab izeneko taldea sortu zuten. Estreinako lana hi urtetara kaleratu zuten. "Assmaster" New Jersey-ko Buy Our Reeords cliskoetxeak argitaratu zuen.

Estatu Batuetako hegoakieko rocka era berezian jorratzen du Rating Slab-ek. Intgattean jorram zituzten estiloen arrastoa gelditu taie nonbait. The New York Post-ek 1990ean "Lynyril Skynyrd meets zioen taideaz idaztean. Hortaz. atera kontuak. Tee Pee Records-en eskutik. 'The dealer¯ joan zen unean plazaratu zen. Hantasi ahestiz osatua, denetik piska hat dtten diskoa da: enitmodun ahestiak. duinu pOlilak ahots melodikoak hatzuetan. logor samarrak heste batzuetan... Produkzioari dagt)kionez. nahiko kaxkarra. Hainheste urte en¯epidean daramattan talde batek soinu hobea eskaini beharkoluke.

Hala ere. kontuan hanzeko taldea da Raging Slah. Dudarik gabe. southent rocka oso era herezian lantzen duen banda.

d

lon (;urrutxaga Arakistain




## LOREA PEREZ DE ALBENIZ

# "UmiEk osu ondo ondioaan lar

**URTE ASKO DARAMATZA LOREA PEREZ DE ALBENIZEK KOMUNIKABIDEEN MUNDUAN. I997. URTEAN ETBN HASI ZEN LANEAN, ETA PROGRAMA DESBERDINETAN AR1TU OSTEAN. "BETIZU TAIDEA" PROGRAMA AURKEZTEN DU ORAIN ETBIEAN. EUSKARAOKEA ETA BETIMU SAIOEN ILDOTIK**

Nondik sortu zen "Betizu taldea" egiteko ideia?

Denbora asko daramagu umiekin eta musikiakin lanian. Euskaraokia izan zan lehenengo, eta gem Betimu. Ildo honetatik jarraitzia nahi genduan, eta "Operaci6n triunfo" eta antzekuak ikusitxa sortu jakun programa hau eitxeko idea. Gure asmua talde bat sortu eta eurekin disko bat grabatzia da.

Nola egin zenuten umeen aukeraketa?

Ekainian makrokasting haundi bat ein genduan. 250 haur aurkeztu zian, eta 20 aukerau genitxuan. Ezaugarri desberdinak hartzen dia kontuan. Ondo kantatzia ezinbestekua da, baina horretaz gain, dantza eitxeko modua eta nortasuna ere baloratzen dia. Jokuak ere ein bihar izaten ditxue, eta taldian barneratzeko ume irekixa izatia hartzen da kontuan.

Erraza al da umeekin lan egitea?

Umiekin lana eitxia erreza da. Urte asko daramatzat umiekin lanian, eta ni oso ondo moldatzen naiz. Umiak gustau ezkero, eta apur bat eurekin tratatzen jakinda, ez dao inungo arazorik. Askotan gurasuekin eukitzen dia problema gehixao.



# ntatzEn dabe, baina asko dakabE EitxEko"

**SORTUTAKO PROGRAMA DA. UMEAK DIRA BERTAN PROTAGON1STAK ETA IZARRAK, ETA LOREAK BERAK ESAN DIGUNEZ, "OSO ONDO ABESTEN DUTE". "BETIZU TALDEA" ABENDURA ARTE IKUSI AHAL IZANGO DUGU, ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARRATSALDEKO 19:45EAN.**

**Umeek ba al daukate etorkizunik musika munduan?**

Oso ondo kantatzen dabe. Bakoitzak bere ahots propiva eta estilua dauzka, eta abesti batzuk bestiak baino hobeto ataratzen zaizkie. Lan asko ein bihar dabe ondiokan. Abestixak ikasi eta abotsa landu bihar dabe. Bi irakasle ipini dizkiegu, eta eurak erakusten dizkiete koreografixak eta kantuak.

**Eta zuk ba al daukazu kanturako dobairik?**

Ez. Oso gaizki kantatzen dot, eta umiek askotan barre eitxen diabe.

**Zein abesti kantatzen dituzue?**

Normalian modan dauden kantuak euskeratzen ditxugu, edo letria aldatzen diegu. Beste batzutan euskal taldien abestixak ere kantatzen ditxugu, baina horrek arazo gehixao ematen dizkigu. Disketxiekin akordiva dakagu, eta batzutan trabak ipintzen dizkigute.

**"Operaciain 'Criunfoko" Ninarekin konparatuko zaituzten beidurrik ba al duzu?**

Askotan konparau naute berakin. Lagunak uda guztixan euki ditxut adarra jotzen, baina ez jata ardura eta urnore onez hartzen dot.

**Zer behar da honelako programa hat aurkezteko?**

Ez da ezer berezirik bihar. Umien koordinatzailia izan, euskaraz jakin eta apur bat lotsagabia izatia.

**Musika talde bat:**
Ken 7.
**Abesti bat:**
Latzen taldearen Laztana, eta Su ta Gar taldearen Jo ta Ke.
**Telebista aurkezle bat:**
Unai Iparragirre.
**Zein programa aurkeztea gustatuko litzaizuke?**
**Ez naiz telebista** aurkezlia, kazetarixa naiz.
**Programak zuzenean ala grabatuta?**
Zuzenekua, askoz emozio gehixao daka.
**Komunikabide gustokoena?**
Hiru mediuetan ein dot lana, eta hirurek dakate bere xarma. Telebistan eta irratixan bapatekotasuna asko gustatzen jata, baina prentsak gaixak sakontzeko eta lantzeko aukeria ematen dau. Desberdinak dia, baina hirurak gustatzen jataz.

irakurri

## EZ ADIORIK
### RAYMOND CHANDLER

I1Y afarrottkub Igela argitaletxeak nobela beltzari eskainitako "SaiI beltza¯ clauka. Bertan Raymond Chandler idazie estatubatuarraren "Ez adiorik¯ nobela daukagu irakumai, Xahier Olarrak itzulita. Lihurua benetako maisulana da. Argurnentu landu bezain erakargarria, onszi definitutako pertsonaiak, elkarrizketa zorrotzak... Gainera, liburuak daukata beste erakartztarrietako bat zera da: Philip Marlowe, detektibea. Izan ere. Chandler bera izan haitzen detektibeen historian hain ezaguna erlin den pertsonaia honen asmatzailea eta bere beste zenbait liburutan ere izata zen protagonista.

Askoren ustez, "Ez adicarik¯ hau, Ravmond Chandlen¯en lanik hirihilena da eta herarekin idazle amerikarmk nobela beltza bere tlailurrera eraman zuen. Baina "The long goocibye¯ hau sekulako nobela da. eta ez jenero beltzektaa bakarrik. Libum bikain honek idazle paregabe bat erakusten digu.

Jon Eugi



GAIA

# Arima Beltza: "

**Datorren urriaren 15ean aurkeztuko du Arima Beltza taldeak bere lehenengo diskoa. "Blues sustraia" izenburupean, 10 abestiz osaturiko diskoa da. Beraien abestiekin batera, Led Zeppelin taldearen "Whole lotta love" kantaren bertsioa sartu dute diskoan. Ion Gurrutxaga, Aitor Badiola, Lander Trinidad, Iñigo Araujo, Elur Arrieta eta Joseba Alonsok osatzen dute taldea. Gogor lan egin dute azken urtean, eta beraien ametsa egi bihurtu da.**



## Blues Sustraia

Duela pare bat urte kaleratu zuen Arima Beltza taldeak lehen grabazioa. Hala ere, maketa eta diskoa grabatzea oso desberdina dela adierazi digute: "Medio eta dedikazio aldetik, oso diferentia da diskua grabatzia. Estudiora sartu aurreko egunetan, sekulako presiva somatzen gendun. Estudixoko lana bi astetan amailxu gendun, baina aurretik lan haundixa einda geneukan". Blues Sustraia jarri diote izena diskoari: "Diskoko kantu baten izena da. Blues-rock taldia gera, eta gure sustraiak blues-etik datoz".

Blues taldea izan arren, mota desberdinetako hamar abestik osatzen dute diskoa. Esan digutenez ez dauka maketarekin zerikusirik: "Rockeruaua urten jaku. Kantuak motzauak dia, entzungarrixauak eta danetarik dao. Oso gustura gaoz ein dogun lanakin". Abestietan landutako gaiak ere desberdinak dira. Musika egin eta letra moldatu egiten dute ondoren. Ionek esan digun bezala, "letrak Ihigok eta nik eitxen ditxugu, eta bakoitzak momentuan barruan dakana idazten dau".

## Musika hobby bezala

Gustuko musika eta kantak jotzen hasi ziren, eta bide horretan darraite oraindik. Jakin badakite, Euskal Herrian musikatik bizitzea oso zaila dela, eta blues-a eginez are eta zailagoa. Hala ere, argi daukate zein den beraien estiloa, eta sekula ez dute aldatzerik pentsatu: "taldearen izena gure musika estiloak zabaldu du, eta guri gustatzen zaigun musika da".

Fundizio zaharrean entzun ziren taldearen lehen blues doinuak. Orain Ehun Kilo taldearen lokalean entseiatzen dute. Ez dute Udalaren aldetik laguntzarik jaso: "Fundiziva bota ein bihar dabe, eta gainera ez dao ensaiatzeko moduan. Aspaldi jarri ginan Udalakin harremanetan, baina ez digu ezertan lagundu, eta sekula ez ditxu herriko musika taldiak bultzatu". Lokal berrian oso gustura daude eta Camilori eskerrak eman nahi dizkiote lokal horretan entselatzeko aukera emateagatik.

Argazkiak: Dani Blanco







# iIIE5 Sustraia" diskoa lastEr kalEan

## Partaideak banan-banan



### Ion Gurrutxaga
- Adina: 24 urte
- Lanbidea: Kazetaria
- Taldeko abeslaria



### Aitor Badiola
- Adina: 28 urte
- Lanbidea: Mekankoa
- Taldeko gitarrista



### Lander Trinidad
- Adina: 24 urte
- Lanbidea: Delineatzailea
- Taldeko gitarrista



### Iñigo Araujo
-Adina: 23 urte
- Ikaslea: Goi Mailako Ingeniaria
- Taldeko baxujolea



### Elur Arrieta
-Adina: 19 urte
Ikaslea: Perkusioa eta informatika moduloa
Taideko bateriajolea



### Joseba Alonso
- Adina: 46 urte
- Lanbidea: Torneroa
- Taldeko aho-soinu jolea

## HISTOBR LABUBRA

1997. urtea zen, 4 lagun elkartu eta Arima Beitza sortu zutenean. Urtebetera Soraluzeko gaztetxean eskaini zuten estreinako kontzertua. Bi berezitasun zituen taldeak: Blues talde euskalduna zen, eta baterijolea, aldi berean taldeko abeslaria zen. Gauzak asko aldatu dira ordutik. Disko berri honen grabaketan parte hartu ez arren, Elur Arrieta izango da hemendik aurrera taldeko bateriajolea. Elurrek esan digunez, "Arirna Beltzako partaide izateko proposau ziatenian, asko poztu nintzan eta aurrera jarraitzeko ilusio haundixa dakat".

Hasieran taldearen berezitasuna bazen ere, zuzeneko emanaldietan abeslari baten beharra somatzen zuten. "Ikusliak abeslarixa bilatzen dao beti, eta atzian egotiak kontzertuari ikusgarritasuna kentzen dio". Ion Gurrutxaga beraren proposamena izan zen bateriajole berri bat hartzea. Ionek esan digunez, erabaki hau hartzea ez da erraza izan: "Kantatzia asko gustatzen jata, baina nere instrumentua baterixia izan da beti, Hala ere, taldian onerako danez, gustura nao". Bere lekua betetzeko aukeraketa egiterakoan, ez dute dudarik eduki: "Elur nere laguna da, ondo ezagutzen dogu alkar, eta argi nakan bera zala aproposena".

Egungo Arima Beltza sei lagunek osatzen dute, beraz. Bi kontzertu eskaini dituzte oraindik partaide guztiek batera, baina hemendik aurrera leku askotan ikusiko ditugu disko berriko kantak abesten. Bi kontzertu baieztatuta daude dagoeneko: urriaren 22an La Casillako Unibertsitatean (Bilbo), eta 24an Gasteizko Unibertsitatean.









# lots@gabE

*Atai honefan azaldu nahi baduzue deitu edo etorri BARRENera. Animatu!*

http:/asierarregi@com / 16 urte



**@ Zein abesti kantatuko zenuke Operacion Triunfo-ko parte hartzailea bazina?**
Su Ta Gar-en David eta Goliath, baina segitxuan kanporauko nindukete abeslari txarra naiz-eta.
**@ Norekin sartuko zinateke Gran Hermanoko etxean?**
Koadrilakoekin.
**@ Eta norekin ez zinateke sartuko?**
Politikariekin.
**@ Defini ezazu zure burua bi hitzetan?**
Aupa gu!
**@ Zenbateko paga ematen dizute etxean?**
Oso txikixa.
**@ Nola ikusten duzu zure burua hemendik 40 urtetara?**
Jubilatzeko desiatzen, bi seme-alabakin eta hipotekia pagatzen.
**@ Zer egingo zenuke 3 eguneko bizia emango balizute?**
Lagunekin egon, bizikletan ibili eta juerga egin.
**@ Zerk kentzen dizu loa?**
Ondo itxen dot lo.
**@ Handia naizenean...izan nahi dut?**
Ni neu.
**@ Zeren alde egingo zenuke gose greha?**
